



Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA

ZIRRIKITUETATIK

Zirrikituetatik sartzen zaigu inauteria, eguneroko pausoa makaldu egiten digu eta bestea bizkor-tu, txarangaren aginduetara joaten den pauso berezi hori. Edozein tokitan gaudela agertzen zai-gu parean, ohikoa hankaz gora jartzen du eta errutina astindu. Mozorro zalea izan edo ez, zaila da erabat aparte ibiltzea. Gutxien esperotako tokian eta unean sudur gorri batek, ileorde batek, brillantina batzuek gogorarazten digute mundua aldrebes jartzeko baimena duela nahi duenak. Sanoa litzateke inauterietan janzten dugun umorea egun gehiagotan ere aldean eramatea. Ba-tzuek, edozein trapu-zahar soinean jarri eta ondo pasatzeko gaitasun nekaezina. Beste batzuek, mozorroz ordena hankaz gora jartzeko abilitadea dutenei begira irri egiteko erraztasuna. Bai, on-do legoke inauterietako umoreak luzexeago irautea, urte batetik besterako itxaronaldia, errutina esaten zaion hori, ez dadin hain zurruna izan. Amagoia Mujika Telleria